

noaua



**Asteazkeneroko
helduen paseoak
bueltan dira**

Zumeta, “agur eta kolore”

**Txomin Alkorta:
“Neure iritzirako
usurbildarrek
irabaziko dute
urriaren 17ko
desafioa”**



6. or.

**KAFE GARAIA
Maialen Iñarra**

“Euskaraldiari esker,
sare bat osatu da Usurbilen”



Lodosako Pikillo piperra



Piperra 3 eratan eska daiteke:

- Gordinik
- Erreta eta garbia 400gr-ko poltsetan
- Izozteko 200 gr-ko poltsetan

*Najerano edo Piko de Mendavia nahi badituzu, galde iezaguzu.

Eskariak 2021/10/16 arte jasoko dira.

www.alkartasuna.eus

Alkartasuna Kooperatiban:

Atallu industrialdea 26, Usurbil
943 361 114 eta 630 938 027
alkartasuna@usurbil.com



noa.ua



Askorako eman dute 25 urtek. 1996. urtean usurbildar askoren inplikazioari esker izugarritzko bultzada izan zuen Noaia Kultur Elkartearen sorrerak.

Herria Herritik egiteko bultzada jaio zen usurbildarren bihotzetik eta eskuz esku mantendu da indar hau denbora guzti honetan zehar.

HARTUKO DUZU ERRONKA? EGIN BAZKIDE!

Zurekin batera beste 25 urte (gutxienez) Herria Herritik egiten jarraitzeko erronkan parte hartzera animatu nahi zaitugu.

**40€
URTEAN**

30 urte baino gutxiago dituzu?
Bazkide izatea erraztu nahi dizugu!
25 € / URTEAN*
* 30 urte betetzean automatikoki bazkideztza arrunta izatera pasako da

ABANTAILAK

Abantaila nagusia herriarentzat izango da. Noaia Kultur Elkartea eragile garrantzitsua da herriko bizitza kulturala, aisialdikoa, etabar bizirik mantentzeko. Baina zuk ere abantaila batzuk izango dituzu:

- Zozketak.
- Deskontuak kultur ekimenetako sarreretan.
- Datorren urteko errenta aitortpenean hobaria jasoko duzu.
- Usurbildik kanpora bizi diren herritarrei, aldizkarla astero posta arruntez jaso aukera.

ZOZKETA

Abendura bitarte bazkide egiten bazara, Usurbilgo komertzioetan erabiltzeko 150 €-ko erosketa bonoaren zozketan parte hartuko duzu.

3 modu dituzu bazkide egiteko:



Bete beheko inprimakia eta bulegora ekarri



Webgunearen bidez
noaia.eus/bazkide



Telefonoz
943 360 321

Izena _____

Abizenak _____

Nortasun agiria _____

Helbidea _____

Herria _____

Posta kodea _____

Telefonia _____

Posta elektronikoa _____

Kontu zenbakia (IBAN) _____

Bazkideztza mota ☐ Arrunta (40 €) ☐ <30 urte (25 €)

Jaiotze data _____

noaia.eus

Albisteak iruditan

Santueneko Gure Elkarteko taberna zabaldu dute

Zabalik da berriz, Santueneko Gure Elkarteko taberna, esleipen prozesua tarteko hiru hilabetez itxita egon ostean, nahiz tarte honetan bilgunezuzendaritzak zenbait orduz irekita izateko erantzukizuna hartu duen. Arduradun berria du guneak, Usurbilgo Udalak berri eman duenez.

Ordutegia

Ordutegi honetan zabalduko dute: lane-gunetan, 9:00-21:00 artean, asteburuetan 9:00-23:00 artean. "Sukalde zerbitzua ere izango dute, bertan prestatutako janaria-ekin".



Arduradun berria du guneak, Usurbilgo Udalak berri eman duenez.

Laburrean

"Gizonak maskulinitateen kaiolan?" solasaldia

Usurbilgo Udalak eta Arremanitz kooperatibak antolatuta, urriaren 14an arratsaldeko 18:00etan Sute-gin. Izen eman behar da aurretik: parekidetana1@usurbil.eus edo 943 377 110.

31,71raino murriztu da intzidentzia

Irailaren 28az geroztik eremu berdean da Usurbilgo herria. Halaxe segitzen zuen urriaren 5ean, 31,71ko intzidentziarekin. Aurreko egunetan 15,85eraino ere murriztu zen.

Urriaren 23an, 1955ean jaiotakoen bazkaria

"Urriaren 23, larunbata, bazkaltzera elkartzeko asmoa dugu 1955ean jaiotak, Atxega jatetxean, eguerdiko 14:00ak aldera". Bertaratu nahi duenak, aurrez ize-na eman dezala: 675 00 64 45 (Maribi).

noa

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noa.eus /// www.noa.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noa.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noa.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia





Luis Aranalde

Pandemia isila

Hilabete pare bat badi-ra Aitziber Garmendia aktoreak bere bikotearen suizidioaz gogoe-tatxo bat idatzi zuela. Sare sozialek txalotu egin dute bere ausardia. 14 urte dira bere buruaz beste egin zuela eta orain izan du Aitziberrek nahiko balentria drama horretaz idazteko. “Oxala lagunduko bagenu!”, dio. Egoera oso konplikatu bizi izan du eta lagundu egin nahi diela esaten du suizidioari lotutako egoera zailak bizi dituztenei.

“Uste nuen ez nintzela inoiz gai izango ‘suizidio’ hitza idazteko”, dio zaldibiar honek. Esperientzia mingarri hori kontatzeko pausu handi bat eman du eta gertakizun latz horretaz hitz egiteko unea iritsi dela uste du. Twitterren idatzi duen mezu honek berpiztu egin du leku askotan hain tabu den debatea.

Bidali zuen txioak ez du galerarik. Besteak beste honako hau esaten du:

“Garrasi mutu bat eta errua besterik ez nintzen ni. Bada garaia gauza hauetaz hitz egiten hasteko. Bada garaia egoera honetan daudenei laguntzeko. Bada garaia neure burua barkatzen hasteko”.

“Ezjakintasunak eta arazo sozial hau tabu bihurtu izanak, suizidioari buruzko mito



“Mila faktorek elika ditzakete suizidio joera horiek”.

LUIS ARANALDE

“Nahigabe guztiaren erdian, itxaropenezko mezu batekin bukatzen du Aitziberrek: ‘hautsi egin nintzen, baina pusketa txikiez osatutako beste NI bat sortu dut’. Zer egin dezakegu guk? Gauza xume bat: sufritzen duenaren begiekin sufrimendua ikusten saiatzea”

faltsu ugari sinestaraztera eramane gaitu”, dio kazetari batek. Osakidetza mito asko gezurtatu ditu bere web orrian. Lehenbizi, suizidioaren gainean hitz egiteak ez du suizidiorik eragiten. Alderantziz; horren inguruan mintzatzeak ez du suizidio ideiarik ematen, hobeto sentiarazten du eta arriskua gutxitzen. Bigarren, edozein

suizidio mehatxu benetako arriskua da eta serioan hartu behar da dagokion garrantzia emanez.

Eusko Jaurlaritzak estrategia bat onartu du suizidioei aurre egiteko. Plazara atera nahi du gaia prebentzioa handitzeko eta arriskua sumatzean, historia klinikoan sartuko dute. Euskal Herrian errepideko istripuetan baino jende gehiago hiltzen da bere buruaz beste eginda. Urtean 300 bat pertsonak hiltzen dute beren burua.

Erakunde horren arabera, suizidio kasu gehienek atzean patologia mental bat dago, buruko osasun arazoren bat. Bikote hausturak, etxeko egoera, ikastetxekoa, umetan edo gaztaroan jasandako esperientzia bortitz bat, lan baldintzak, pobrezia. Mila faktorek elika ditzakete suizidio joera horiek.

Jaurlaritzak neurri ugari

proposatu ditu suizidioen tabua hausteko eta prebentzioarako. Lehenik, suizidioei buruzko jarraipena eta ikerketa egiteko baliabideak jarriko dituzte martxan. Ikerketaren esparruan, suizidioen erregistro bat sortuko dute.

Bigarren, aldi-aldi suizidioari buruzko kanpainak egingo ditu “estigma murrizteko eta kontzientzia areagotzeko”. Hirugarren, prebentzio lana ikastetxeetara, gizarte zerbitzuetara eta lan esparrura zabaltzea erabaki du.

Prebentzio lan hauetan, familiaren rola da giltzarri.

Aitziber Garmendiak aipatzen duen erru sentimendua hori oso indartsua izaten dela dio Cecilia Borrás psikologoa. “Psikologikoki lur jota uzten zaitu. Etengabe pentsatzen duzu zein eragin izan zenuen haren erabakian eta zergatik ez zinen jabetu egoeraz. Sentimendua hori ondo bideratzen jakin behar da”.

Nahigabe guztiaren erdian, itxaropenezko mezu batekin bukatzen du Aitziberrek: “hautsi egin nintzen, baina pusketa txikiez osatutako beste NI bat sortu dut”. Zer egin dezakegu guk? Gauza xume bat: sufritzen duenaren begiekin sufrimendua ikusten saiatzea.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Ika-mika

Lurraren defentsan Arbonara goaz!

Dagoeneko entzungo zenuten Lapurdin kokatuta dagoen Arbona herrian, lur eremu baten okupazioa egin dutela. Arbonako plazatik bi kilometroa dagoen 15 hektareako lur sail bat eta bertan dagoen etxebizitza bat 3.200.000 euroren truke saltzekotan dira, orain arte laborantzarako lurrak izan direnak. Parisen bizi den emakume aberats batek erosi nahi du lur saila eta hau ekidite aldera, ekainaren

21etik aurrera ELB sindikatuko eta Lurzaindia elkarteak kideek lur eremua okupatu zuten, hau guztia salatu eta erantzun herritar bat emateko. Ordutik geroztik, jende andana pasatu da elkartasuna eta atxikimendua adieraztera okupatutako eremura. Iraila guztian zehar, egunen banaketa bat egin dute eta egunero Ipar Euskal Herriko beste herri bat izango dute bide lagun "Egun bat, Herri bat" dinamikaren bidez. Egutegia edo

informazio gehiago nahi baduzu, Lurzaindiako web orrian aurkitu dezakezu.

Honen jakitun gu ere lurraren defentsan gaudela aldarrikatzeko urriaren 16an Arbonara joango gara Usurbildik. Muga inposatuaren gainetik lurraren espekulazioaren aurkako borroka babestu eta Arbonako kideekin bertako errealitatea hobeto eza-gutzeko. Goizeko 10:00ak aldera aterako gara Oiardo kiroldegitik eta arratsaldeko 17:00ak

bitartean okupatutako etxaldea ezagutu eta alboan dagoen gunean eguna pasatzea da asmoa. Bazkaria bakoitzak eraman beharko badu ere izango da bertan zer jan, edan eta batez ere bertako kideekin ze hausnartu.

Etorri nahi izanez gero idatzi zubiriaxuban@gmail.com edo lonxo@telefonica.net emailera. Itxi bidea espekulazioari.

Lontxo Zubiria

Ika-mika

Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna

Aurten ere, pandemia baten erdian ospatzen ari gara, gure bizikidetzari, gure osasunari eta kolektibo kaltebera gisa ditugun eskubideei kalte handia egitera etorri den pandemia baten erdian.

Garai hauetan, ongizate-sistema indartsu bat izatearen garrantzia egiaztatu dugu; izan ere, osasun onik gabe, egoitza onik gabe, mendekotasunari zerbitzu onik eman gabe, babesik gabe gaude, eta, bereziki, adineko pertsonok.

Pandemiak ongizateko Erakunde Publikoen garrantzia azpimarratu du, enpresa pribatuak ez baitira ordezkatzeko gai. Balorazio horrek Pentsio Publikoen garrantzia ere aitortzera garamatza. GAPEP-PAMPGek beti defendatu du adinekoen giza eskubideak errespetatzea eta bizitza duina bermatzea. Arrazoi askorenga-

tik dauden ehunka mila adineko pobrezian sartuta, edo ezin dute hilabete amaierara iritsi, alokairua, argia, gasa eta abar ordaindu. Horregatik, Pentsioen Sistema Publikoa egonkortzea eskatzen dugu, eta 1080 euroko Gutxieneko Pentsioa bermatzea, bizitza duina bermatzeko.

Halaber, eskatzen dugu erakundeek, eremu guztietan, osasun publikoa berma dezatela, beharrezkoak diren giza baliabideekin eta baliabide materialekin, osasun-arreta publiko duina bermatzeko, adinekoen-tzat hain beharrezkoa dena, besteak beste, gaixotasunak hartzeko oso adin ahulean gaudelako. Era berean, etxean eta egoitzetan Zainketa Zerbitzu Publikoa behar dugu, espekulazio-enpresek osasuna eta adinekoen zainketa kontrolatzea galarazteko, poltsiko gutxi batzuen mesedetan eta gehiengoaren kaltetan.

Ildo horretatik, publiko guztiaren defentsa egiten dugu. Pertsona erdigunean jartzeak zainketa-eredua aldatzea dakar, eta, horretarako, egoitzei giza baliabide eta baliabide material handiagoak eman behar zaizkie, pertsonen segurtasuna eta duintasuna bermatzeko.

Era berean, adineko pertsonen kolektiboan ere berdintasun-politikak eskatzen ditugu. Pentsioek, bai eta soldatetan eta pentsioetan dagoen arrakala kentzeak, osasunak eta zainketek (etxean edo egoitzetan) lehenetsunezko eginkizuna betetzen dute adinekoen osasuna eta bizitza zaintzeko, baina badira beste alderdi oso garrantzitsu batzuk ere, haien ongizatean eragin zuzena dutenak eta defendatzea garrantzia dutenak, hala nola diskriminazioa eta/edo tratatu txar fisikoa, emozionala, arduetan zabarkeria eta nahi gabeko bakardadea desa-

gerraraztea.

Aldarrikapen horien argitan, konponbideetan parte hartze-ko eskubidea eskatzen dugu, eta, beraz, Erakunde Publikoei pentsiodunen mugimenduekin hitz egiteko eskatzen diegu, egoera horrek eragindako pertsonak direlako.

Azkenik, GAPEP-PAMPG-etik elkartasuna adierazten diegu adineko pertsona ahulenei, eta eskatzen dugu gure giza eskubideak aintzat har ditzatela eta bizitza duina berma diezagutela gure bizitzaren amaierara arte. Egun honetan, balioa eman nahi diogu adinekoek gizarteari egiten diogun ekarpenari, eta adierazi nahi dugu egiten ari garen borroka zentzu handia duela gure osasunerako eta bizitzarako.

Gipuzkoako Adinekoen eta Pentsiodunen Elkarteen Plataforma



Kima
MASAJE LEKUA
·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Maialen Iñarra: “Euskaraldiari esker, sare bat osatu da Usurbilen”

Maialen Iñarra Arre-
gi Soziolinguistika
Klusterreko ikerlaria
da eta Usurbilgo Euskaraldia
Batzordeko kidea. NOAUaren
25. urteurrena aitzakian, Kafe
Garaia izeneko atala abiarazi
genuen eta zubietar gaztea da
aste honetako protagonista.

**NOAUA! Hizkuntza-eskubideen
alorrean ez da oso garai ona
izan. Zu Soziolinguistika Kluste-
rrean ari zara lanean eta Eus-
karaldia batzordeko partaide
ere bazara. Pandemiak berare-
kin ekarri duen guztia nola bizi
izan duzu?**

Maialen Iñarra: Mezu batzuk
euskaldunok ez ditugu modu
berean jaso eta kritika hori
edo aldarrikapen hori mahai
gainean egon da. Ez dut uste,
gainera, euskararekin bakarrik
gertatu denik. Egia esan, na-
zioarteko beste hizkuntza gu-
txituekin ere antzeko zerbait
gertatu da. Zentzu horretan,
hizkuntza-eskubideen Beha-
tokiak, oker ez banago, iazko
salaketen txostena agertu zue-
nean, urraketak nabarmen igo
zirela aipatu zuen. Kezka hori



“Niretzat Euskaraldia aitzakia oso polita izan da euskalgintzara hurbiltzeko”.

MAIALEN IÑARRA

**“Euskaraldiko bi edizioek
eman dutenarekin
gustura gaude, eta
bereziki sortutako
harremanengatik”**

azaleratu da pandemia garai
honetan eta agerian utzi du ez
dugula trataera berdina izan.

**Jende askok Euskaraldiarekin
lotzen zaitu. Orain arte egin
diren bi edizioetan burubela-
rri aritu zara lanean. Euska-
raldia euskaltzaleen topaleku**

**eta sentsibiltate ezberdineko
herritarren topaleku bilakatu
da. Hizkuntzaren ikuspegitik
haratago, bizikidetzan eta he-
rritarren arteko hartueman ho-
rretan ukendu modukoa izan
dela iruditzen al zaizu?**

M. I.: Bai, niretzat Euskaral-
dia aitzakia oso polita izan da
euskalgintzara hurbiltzeko. Gi-
za-mugimendu sozialetan parte
hartzeko prestutasuna beti izan
dudala uste dut eta horretan
jardun dut. Euskara ere eten-
gabe buruan neukan zerbait
zen, baina egia da Euskaral-
diak eman zidala aukera gehia-
go Usurbilen euskalgintzaren
bueltan zegoen jendearengana

hurbiltzeko, eta herritarrekin
zein eragileekin hartueman
hori edukitzeko ere. Euskaral-
diak hori eskaini du nire ustez,
eta gaur egun ere uste dut la-
gungarri izan dela: sare bat
osatu da, eta euskararen gaiak
landu nahi direnerako taldetxo
bat batu da, aurrerantzean ere
hor egongo dena. Lehenengo
Euskaraldian, ni lanik gabe
nengoen eta inplikazio handia-
rekin sartu nintzen, eta pres-
tutasun osoarekin. Jendeak
gehiago identifikatu ninduen
horretan. Bigarren edizioan
maila baxuagoan parte har-
tu dut, baina uste dut taldera
jende berria batu dela eta izan
dugula hartueman bat ere de-
non artean.

**Pandemiaren gainetik, egitas-
moari segida eman ahal izan
zitzaien, ezta?**

M. I.: Pandemiaren kontuarekin
agian ez gara hasieran jarri ge-
nituen helburu horietara iritsi,
baina uste dut emaitza batzuk
lortu ditugula. Gustura eman
duenarekin eta bereziki sortu-
tako harremanengatik eta dina-
mikarengatik.

“Euskararen ezagutzak gora egin du baina erabilera ez da neurri berean hazi”

**NOAUA! Soziolinguistikaren
Klusterrean hizkuntzaren
erabileraren neurketak egi-
ten dituzue. Azken urteotan
Euskal Herrian eman den bi-
lakaera kontuan hartuta, zein
da erradiografia? Kezkatzeko
modukoa da ala baikor izate-
ko arrazoia al ditugu?**

Maialen Iñarra: Euskalgin-
tzan azkeneko urteotan asko
aipatu da euskara ez ote den

bidegurutzet batean aurkitzen.
Uste dut Kike Amonarrizki edo
irakurri niola nola eskolak
euskaldundu duen belaunaldi
berri horri ez badizkiogu era-
bilerarako espazioak eskaini-
tzen, haien seme-alabek ez
diotela zentzua ikusiko eus-
kara ikasteari ere. Eta horrek
ez ote duen jartzen hizkun-
tzaren biziberritze prozesua
bera kolokan. Datuek ere hori

erakusten digute. Azkeneko
25 urteotako bilakaera kon-
tuan hartzen baldin badugu,
adibidez, ezagutza datuek
gora egin dute, euskara gero
eta jende gehiagok ezagu-
tzen du. Badu gaitasun hori,
baina erabilera ez da neurri
berean hazi. Hor bada orain-
dik koska handi bat. Uste dut
erabileran fokua jarri behar
dugula, eta erabilera susta-

tzeko ekimenak jarri behar
ditugula martxan. Hain justu
paradigma berri batean
aurkitzen gara, eta horrek
aldaketa handi bat eskatzen
dio euskalgintzari. Hiztun
berri horiek, eskolak eus-
kaldundu dituen hiztun-be-
rri horiek, dituzten beharrei
bideratutako ekimenak sus-
tatu behar ditugu erabileran
jauzi bat izateko.

“Haurrak eta gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak”

NOAUA! Iaz **Gazteak euskaren eszenatokian: erabileraren auzia txostena** plazaratu zenuten. Gazteek ez dute erraza euskarara gerturatzea. Antzekorik ondorioztatu zitekeen txosten horretan. Usurbil bezalako herri batean ere halaxe gertatzen al da? Zeintzuk dira gazteok topatzen dituzuen zailtasun horiek?

Maialen Iñarra: Usurbilgo berri jakin nahiko bagenu komeniko litzateke azterketa bat egitea bertan [Soziolinguistika Klusterraren ikerketa Amorebieta-Etxano, Gernika-Lumo, Pasai Donibane eta Zumaian egin zen]. Ez gara egon Usurbilgo gazteekin eta ezin esan beraiek pentsatzen dutena edo hor dau den gakoak zeintzuk ote diren. Ikerketa horretan, gazteek eskolarekin eta familiarekin lotzen dute euskara. Harreman-tzeko gune garrantzitsu gisa, bi horiek identifikatu dituzte. Gazte-izaera osatze horretan, beste esparru garrantzitsu bat eskolatik kanpo egiten den guztia izango da. Zentzu horretan, gabeziak daude euskararen erabilerari dagokionez. Ikertzaileek aipatzen zuten ideietako bat zen gazte kulturak eta euskarak bat egiteko behar bat dagoela. Tartean dago lehen aipatutako eremu digitala, adibidez. Gazteek asko kontsumitzen dutena edo erabiltzen dutena. Ikertzaileentzat



Maialen Iñarra Arregi Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria da eta Usurbilgo Euskaraldia Batzordeko kidea.

MAIALEN IÑARRA

“Garrantzitsua da eredu garen helduok hizkuntza ohiturak aldatzea, gazteek ikus dezaten eremu guztietan erabiltzen dugula”

horiek dira gakoetako batzuk.

Niri gustatuko litzaidake azpimarratzea hizkuntzaren biziberritze prozesurako logikoa dela gazteei erreparatzea, etorkizuneko belaunaldietan ere hizkuntza berrmatzea lortu behar dugulako. Baina kontuan eduki behar dugu demografikoki helduak direla biztanle kopuru altuena dutenak, eta kale erabileraren datuetan halaxe ageri da. Hala ere, adin taldeen arabera aztertuta, haurrak eta gazteak dira euskara

gehien erabiltzen dutenak, baita kalean ere. Hori ere balantzan jarri behar da.

Gazteek askotan badute helduak imitatzeko joera. Azken batean, horrela ikasten dugu, imitazioz, beraz uste dut helduok ere badugula hor zer egina. Belaunaldi berriek ere aldaketa hori edo jauzi hori egin dezaten. Nire ustez, Euskaraldiak hein batean hori jarri zuen mahai gainean. Izena emateko adin tarteari dagokionez, 16 urtetik gorako muga hori jarri zuenean, hain justu hori aldarrikatu nahi izan zen. Garrantzitsua da eredu garen helduok hizkuntza ohiturak aldatzea, gazteek ere ikus dezaten eremu horretan erabiltzen dela.

Ikerketa horretan bada deigarria egin zaigun beste kon-

tu bat: euskalgintza urrun ikusten dute gazteek. Ez dira bertako kide sentitzen. Euskalgintzak dio, era berean, ez duela gazteengana hurbiltzen asmatu. Bitxia da, NOAUA!n ere antzeko irakurketa egin izan dugulako. Zure ustez, sentipen berbera dute gure inguruko gazteek?

M. I.: Izan daiteke. Guk behintzat txikitatik irakurri izan dugu NOAUA! etxean eta, nik behintzat, asko estimatzen dut aldizkariaren lana.

Uste dut gogoeta hori partekatua dela. Antzekoa entzun izan dut beste herri askotako euskara elkarteetan aldetik ere. Oker ez banago, Topagunearen baitan badago gogoeta bat ere: herrietan euskaltzaleen mugimendua antolatzeke modua izan da euskara elkarteena, baina gaur egun ez ote den gazteen behar horiei erantzuteko moduko antolaketa eredua.

Bazkideztaren gaia adibidez, gazteak ez du hain barneratuta. Gazteak akaso beste modu batera saiatu garelako antolatzen. Gazte mugimenduak beste antolaketa modu batzuk ditu. Beraz, antolamenduaren inguruko gogoeta hori egin beharko litzateke. Euskara elkarteetan baita ere, gazteak erakarri ahal izateko. Baina hori gazteekin landu beharreko zerbait dela iruditzen zait. Ahalegin hori egitea komeni da.

“Gazteak Instagram eta Tik-Tok aplikazioetan daude”

NOAUA! 25 urte eta gero, lan asko dugu aurretik. Dena den, eta irakurle zaren aldetik, iritzi eske gatozkizu. Zure uste apalean, NOAUA!k zer du faltan eta zer du soberan?

Maialen Iñarra: Komunikazioan, aisialdian, kulturean... Lan handia egiten da. Gurasoek haurrekin euskara erabiltzeko espazioak sor daitezke akaso, gurasoek paper hori identifikatu dezaten.

Bururatzen zaidan beste proposamena gazteekin lotuta dago. Eremu digitalean ere bazaude, baina agian modu ludikoagoan egin daiteke beste zerbait, gazte horiei begira. Gaur egun gazteak Instagram

eta Tik-Tok aplikazioetan daude. NOAUA!k zerbait gehiago garatu beharko luke bertan, entretenimenduaren arlo horretan. Bi horiek bururatu zaizkit, baina merezi dute modu pausatuagoan pentsatzea.

Urriko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa

**ARIES**

Dantzalekuetan dantza egin dezakezu, baina kontzertuetan ez. Nork ulertzen du hau? Hileko aholkua: Ezin bada dantza egin ez da zure festa!

**CANCER**

Esperientzia berria eta zirrargarriak bizitzeko gogoz zaude? Hileko aholkua: Zatoz urriaren 23an NOAUA FESTARA; ez zaizu damutuko!

**LIBRA**

Aurten bai. Aurten zure urtebetetzeak "normaltasun" handiagoarekin ospatzeko aukera izango duzu.

Hileko aholkua: Gel hidroalkoholikoa bai, baina ez txupitotan!

**CAPRICORNIUS**

Enegarren aldiz dietan jarriko zara eta enegarren aldiz lehenengo astean bertan behera utziko duzu.

Hileko aholkua: Jan ondo eta mugitu ipurdia, askoz ere eraginkorragoa izango da eta!

**TAURUS**

Denboran atzera egin-go zenuke hainbat gauza konpontzeko.

Hileko aholkua: Hilabete bukaeran ordu aldaketa egin-go dute eta ordu bat gehiago izango duzu, aprobetxatu!

**LEO**

Marte laugarren atean eta ilar-gia bosgarrenean izango dituzu hilabete honetan, kontuz.

Hileko aholkua: Ez egin kasu astrologiari eta bizi zuk nahi duzun bezala, bada eta garaia!

**SCORPIUS**

Oporrak duela gutxi izan dituzu, baina dagoeneko oso nekatuta zaude pandemiaren ondorioz.

Hileko aholkua: Oporrak behar dituzu berriz. Emaiozu nagusiari eroskopo hau ziurtagiri bezala.

**AQUARIUS**

Hilabete honetan triste xamar egongo zara, temperatura freskoak ez dituzulako maite.

Hileko aholkua: Atera armairutik pijama luzea eta hanketako poltsa beroa eta konponduta!

**GEMINI**

Ondo egin duzu pilatesera apuntatzen. Zure gorpuzak eskertuko dizu.

Hileko gomendioa: Behingoagatik joan zaitez bi klase baino gehiagotara, mesedez!

**VIRGO**

Udazkena garai zoragarria izaten da naturarekin bat egiteko. Hileko aholkua: Iratiko basoa ederra da, baina Andatza eta Bordatxo inguruak ez diote batere inbidiarik!

**SAGITARIUS**

Norbait berezia ezagutuko duzu hilabete honetan. Adi egon.

Hileko aholkua: Ez legoke gaizki zure "ligatzeko teknikak" berrituko bazenitu. Edo zuzenean aldatuko bazenitu, hobeto.

**PISCIS**

Halloween eta antzeko kontuekin kokoteraino zaude, kulturalki kolonizatzen ari zaizkigula eta.

Hileko aholkua: Ba badakizu garai batean Usurbilen ere kalabazak jartzen zirela kaleetan jendea ikaratzeko?

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ERAMATEKO!!!

·EGUNEKO MENUA
·KARTA

ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)
BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

ADA
-MASAJEAK-

633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL



**“Garrantzitsua da sentitzea
Zuberoa punta arte,
bihotz bati konektaturik
izaten ahal garela”**

Maika Etxekopar

Antzerkilaria

berria

zuk badakizulako

Egin

BERRIAlaguna

Txomin Alkorta Sarriegi: “Segak urte haietan niretzat sekreturik ez zuen”

Giza proba edo dema dagoen tokian, han inguruan Txomin. Hala diote urriaren 17an Egioleta baserriko Txomin Alkorta Sarriegi omendu nahi duten lagunek. Herri kiroletan lehiakide nahiz eragile gisa, ibilbide ezin oparoagoa jorratu duen herritarrari gorazarre egingo diote igande horretan, bestela izan ezin zuen moduan, Usurbil Herri Kirol Taldeak antolatu duen “desafio” baten bueltan. Txominekin bildu da aldizkari hau.

NOAUA! Baserriko lanetan du jatorria zeure ibilbidearen abiapuntuak?

Txomin Alkorta Sarriegi: Haurtzarotik gure jostailua sega izaten zen. Igeldoko jaietan aizkora lehiatzen zen osaba. Bera ezkondutakoan urtero ateratzen ginen. Igeldon asteasuar bat zegoen bizitzen eta hik sega ingo huke esan zidan. Probatuko nuela eta 19 urte nituela, Jaurregira, Hernanira eraman zidan berak txapelketa batera, 1973an. Orduan ez zen pisua kontuan hartzen, 1.500 metro koadro zeinek lehenago ebaki izaten zen eta hura irabazi nuen.

Hortik, jarraitzeko grina.

Txapela eman zidaten eta horrek eman zidan segitzeko



Urriaren 17an Egioleta baserriko Txomin Alkorta Sarriegi omenduko dute Dema plazan antolatu duten desafioan.

TXOMIN ALKORTA

“Haurtzaroan gure jostailua sega izaten zen”

gogo hori. Bide hori jarri zuen. Osaba bat nuen segitzen zidana eta hark bultzata. 1974an ere atera nintzen, bigarren egin nuen Jauregin. Hortik atzera bi apustu ere egin nituen aizkora, bat Usurbilen, bestea Azpeitian.

Zenbat txapela dituzun zenba-

tu al duzu?

Zortzi edo badaude.

Euskadiko txapelketak, Espainiakoak...

1975ean hil zen Franco eta orduan aldatu zuten Euskadikora. Bigarren geratutakoak hiruzpalau txapela baditut.

Zer nolako giroa izaten zen orduan herri kirolen bueltan?

Orain baino serioagoa zen. Apustuak eta txapelketak serio hartzen zituzten, eta jendea gainean izaten zen.

Baserriko lana bera entrenamendu gunea izango zenuen.

Baserrian ere lan egin behar izaten nuen. Nahi bezala ez nintzen prestatzen baina bai, sega egunero eskuan. Segak urte haietan niretzat sekreturik ez zuen.

Hainbeste txapela irabazteko teknika berezirik ba al zenuen?

Ez, teknika bakoitzak berea izaten du. Batzuk eleganteagoak izaten dira, besteak nahiz itsusiagoak ikusteko gehiago ebakitzen dizu.

“Indarraren erdiarekin ebakitzen duzu erreminta zorrotza baldin baduzu”

NOAUA! Zorroztaille ona zarela diote lagunek.

Txomin Alkorta Sarriegi: Abantaila handiena izaten nuen sega neronek pikatzen nuela. Gero zorroztu ere ahal nuen guztian egiten nuen. Ordubeteko saioan ordu erdi bat

zerorrek zorrozteko aukera izaten zenuen, ikaragarri gus-tatzen zitzaidan, ze zorrozten nuen eta gorputzari atsedena ematen nion.

Erreminta zorrotzak abantaila handia du. Indarraren erdiarekin ebakitzen duzu

erreminta zorrotza baldin baduzu.

Atzera begira, sega txapelketen garai ederrena bizitzea egokitu zitzaizula esan al dai-teke?

Bai, orain ez dute jartzen sari-

rik. Garai hartan bai, bazene-kien zer diru jasoko zenuen. Orduan ere gutxi izaten zen baina orain eskasago dago kontu hori, inork ez du es-aten zenbat emango dizun, non eta apusturen bat egiten ez duzun.

“Neure iritzirako usurbildarrek irabaziko dute urriaren 17ko desafioa”

NOAUA! Txapelen artean bazu baten bat oroitzapen hobe dakarkizuna?

Txomin Alkorta Sarriegi: Gehiena estimatutakoa aurrenekoa; Basarri zaharrak esaten zuen, uste ez den tokitik erbiak egiten du salto eta nik hala egin nuen. Arriya, Aierbe eta Aburuza ziren lehiakideak. Eta ni 19 urteko gaztea, hura izan zen ezustekorik handiena, aurrenekoa izatea. Txapela denek ematen dute poz hori baina hura zen aurrenekoa.

Lehia gogoangarririk?

Harri handiarekin egin zen Usurbilgo saio handi hura. Bizkaitik lau, Arabatik bost, frantsesak sei eta herrikoak zazpi koadrila atera ginen 1987an. Orduan bai jendea, mundua zen ordua plazan. Laugarren amaitu genuen. Entrenamenduetan sekula ez ginen jiratzen ibiltzen harria eta uste baino gehiago joan. Txapelketan denbora asko galdu genuen eta halere plaza eta hiru zinta egin genituen.

Aizkoran ere ibili zinen.

Igeldon herriko festetan eta gero bi apustu egin nituen bat Usurbilen, 1974 inguruan; beste igeldoar bati 10 kana erdikitara irabazi nuen eta handik



“1984an bukatu nituen sega kontuak, onenean nengoela. Gero idiekin-eta aritu nintzen”.

TXOMIN ALKORTA

“Segan onenean geratu nintzen. Ez dut damurik utzi izanagatik, ondo utzi behar da sasoia duzun artean, ez arrastaka zabiltzala. Itsusia da”

hiruzpalau urtera ere Azpeitian jokatu nuen igeldoar baten aurka eta hura galdu egin nuen. 1984an urte hoberena izan nuen, Hernanin, Larraitzen, Andoainen jokatu nuen

eta finala Iturriotzera jokatzera joan ginen, han bigarren egin nuen. Ika-mika izan zen han; belarrik ez zutela jarri behar beste eta ni minutu eta erdiz geldirik egon nintzen, bigarren amaitu nuen.

“Herri kiroletatik ez dago bizitzerik”

Ibilbide luzea jorratu duzu herri kiroletan.

1984an bukatu nituen sega kontuak, onenean nengoela. Gero idiekin-eta aritu nintzen.

Gehiagorako gogoz geratu al

zinen?

Segan onenean geratu nintzen. Horretatik bakarrik ezin bizi eta nik ere etxean lanak nituen. Ez dut damurik utzi izanagatik, ondo utzi behar da sasoia duzun artean, ez arrastaka zabiltzala, itsusia da. Azken urteetan arrastaka ikusten bazaituzte lehen egindako dena galdu egiten duzu eta nik damurik ez dut egia esan.

Ze eman dizu herri kiroletan aritzeak?

Mundu horretako jende asko ezagutzeko aukera. Gainerakoan, herri kiroletatik ez dago bizitzerik, baina gustatuz gero mundu polita da.

Herri kirolek zer nolako bilakaera izan dutela sumatu duzu?

Beherakada. Zu jarri zaitez begira edozein erretratutan eta lehen jende gehiago izaten zen.

Urriaren 17an “desafio” berria. Belaunaldi berria nola ikusten duzu?

Ondo, hori segitu beharra dago.

Apustua egitekotan zeinen alde?

Neure iritzirako usurbildarrek irabaziko dute.

Urriaren 17an Dema plazan, desafioa eta omenaldia

Herri kirolen plazan bilakatu da Usurbil urriaren 17an. Eguerdiko 12:00etan hasita Dema plazan, Usurbil Herri Kirol Taldearen eskutik bilguneko hiru kide, Aimar Zuloaga Segurola, Gabi Sarasola Ibargoyen eta Iurgi Men-

diluze Zuloaga 1.800 kiloko Urepel harriari tiraka ariko dira. Joseba Sanchez leitzarra 750 kiloko harriari. Segidan, herri kirolen munduan ibilbide oparo askoa izan duen Egiolleta baserriko Txomin Alkorta Sarriegi herritarrari omenal-

dia. Hitzordurako sarrerak egunean bertan 5 eurotan, Sutegi atarian. Eguerdia borobiltzeko, bazkaria Saizar sagardotegian. Bertaratu nahi duenak, urriaren 15a baino lehen deitu dezala 618 009 069 telefono zenbakira.

Buruntzaldeko

Ibilbideen Eguna

Eskualdeko bidezidor eta parajeez gozatzeko aukera eskura jarriko digute beste behin, Buruntzaldeko udaleko kirol zerbitzuek urriaren 17rako antolatu duten Buruntzaldeko Ibilbideen 13. Egunak. Ohi bezala, ibilbide amaieran nor bere herrira itzultzeko autobus zerbitzua izango da.

Oilasko biltzaileek ez zuten hutsik egin



Jende asko hurbildu zen Ostolaza eta Narbaiza trikitilarien saiora eta Albertoren bakarriketara. Kultur ekitaldiekin osatu dute aurtengo jai egitaraua Aginagan.

Ostolaza eta Narbaiza trikitilari bikotea igo zen Eliza Zahar atariko oholtzara larunbat iluntzean. Dozenaka lagunen au-

rrean, abesti aski ezagunak eta trikiti soinuak zabaldu zituzten musikariek Aginagan.

Ondoren, Albertoren bakarrik-

ketak erakarri zituen begirada guztiak. Aginagarra estreinakoz igo zen oholtzara bakarriketabat egiteko, eta non hobe Agi-

nagan egitea baino. Jende ugari hurbildu zen Albertoren ikuskizuna ikustera eta artistak ez zuten hutsik egin.



Aginagako lehen gaua gozatze aldera, gaueko hamarretatik aurrera hainbat pertsona hurbildu ziren frontoira Lukiek eta Ibil Bedi taldeen kontzertuak ikusteko.



Potxin eta Patxin pailazoez hartu zuten Ariztitxo frontoiko begiraden erantzukizuna igande arratsaldean. Dozenaka haur eta gaztetxoren aurrean, zirkuko diziplinak eta ohiko pailazoen ikuskizuna nahastu zituzten bi artistek.

Aginagako egun handian amaitu zen Kultur Bira



Gaztetxoak, San Praixku Guraso Elkarteak antolatutako jolasetan.



Aginaga Sagardotegian hamaiketako ederra eskaini zitzaizen helduei.

Belaunaldi gazteen nahiz helduenen eguna ospatu zuten iragan astelehenean. Irudiok horren lekuko. Goizean, San Praixku Guraso Elkarteak antolatutako jolasetan ezinhobeto

pasa zuten, eskolan jai zuten aginagar gaztetxoek. Haiei begira izan ziren, meza ostean, pilotalekura gerturatu edo handik igarotzen ari ziren herritar helduenak. Denak, Aginaga Sa-

gardotegira bidean. Jai Batzordearen eskutik, bertan sukaldatutako hamaiketako ederra dastatzeko tarte hartu zuten, bertsolariek giroturiko hitzorduan.

Karaokean abesten igaro zuten bazkalostea, eta toka txapelketa iragarria zuten arratsalderako. Aurtengo Kultur Bira amaitzeko azken ekintzak izan ziren hauek.



noaia.eus

Herriko berriak beti soinean

Albisteak, argazkiak, bideoak,
agenda, zorion-agurrak,
eguraldia, aldizkaria online...
Klik batean den-dena ikusgai zure
eskuko telefonoan, tablet-ean
edo ordenagailuan.



www.noaia.eus

Zumeta, agur eta kolore

Jose Luis Zumeta iaz zendu zen, pandemia lehertu eta hilabetera. Gauzak hobera egin duten honetan, Usurbilgo herriak Zumetarekin zuen zorra kitatu ahal izan du.

Aurreko larunbatean, senide

eta lagun ugari bertaratu ziren Mikel Laboa plazara. Usoa Zumetak gidatu zuen omenaldia eta hitz sentitu hauekin amaitu zuen bere hitzaldia: “Esku zabala zentzu zabalenean, parekoarekin aurreiritzirik gabea, jakinmin handikoa, dramatis-

moa batere maite ez zuena, horrelakoa zen aita, Jose Luis, Zume, Zumeta”.

Agurtzane Solaberrieta alkatetxak margolariaren gertutasuna eta konpromiso soziala nabarmendu zituen: “Bere apalean, arrasto itzela utzi du han eta

hemen. Euskal Herrian eta mundu zabalean. Eta zer esanik ez, Usurbilen. Gure herriaren izaerari arnasa emateraino. Bere obra izengabeek gure bihotza okupatzen jarraituko dute, ezin baita ulertu Usurbil, Zumetarik gabe”.



Omenaldian parte hartu zuten lagunak irudiotan batu ditugu: Alazne Begiristain eta Eli Eizagirre txalapartariak, Usoa Zumeta, Mikel Telleria kantaria, Bernardo Atxaga idazlea, Aitor Agirre dantzaria eta Usurbilgo Txistulari Taldea, Agurtzane Solaberrieta alkatea eta Gari eta Josu (Hertzainak), hurrenez hurren. Ekitaldiko pasarte batzuk bideo-iruditan jaso genituen. QR kodeari lotuta dago bideoorako esteka zuzena.





Praktikatu Euskaraz Gurekin



TALDE
TXIKIAK

ESPazio
SEGURUETAN

NEURRI
GUZTIEKIN

Euskara praktikatu nahi baduzu, baina ez badaukazu norekin egin; edo euskalduna izanda euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, hainbat proposamen dauzkagu zuretzat:
Mintzataldeak / Familia-ekintzak / Txangoak / Tailerrak / Mintzodromoak / Lehiaketak / Hitzaldiak / Mendi-irteerak / Asteburu-pasak...



INFORMAZIO GEHIAGO



607 609 379
praktikatu.eus/blog/usurbil
usurbil@aek.eus



Sustatzailak



Errefusaren herena, birziklagarria

Egunerokoan Usurbilen merkataritza eta industria jardueretatik biltzen den errefusean (udalerrri hone-tako zati birziklaezin guztiaren %60-65) birziklagarria den gairik ba ote den aztertu nahi izan zuen Anerreka ingurumen elkarteak irailaren 25ean, Dema plazan antolatu zuen karakterizazio ekitaldian.

Usurbilen jasotakoaren lagin bat ekarri zuten bertara; eta edukiontzi batean zegoena aztertuta, errefusaz gain, beste-lako gaiak ere aurkitu zituzten. “Birziklagarriak diren hondakin multzo batzuk atera dira, beste batzuk garbi, errefusa dira. Badira beste batzuk errefusan egon behar ez luketenak hondakin bereziak direlako”, eta beste enpresa batzuk jaso behar lituzkete, “baina errazena eta merkeena izanik errefusara botatzen dituzte eta beste hondakin mota hauek nahastutakoan ere birziklaezin bihurtzen dira”.

Egun %86a da

Errefusaren herena birziklagarria dela egiaztatu ahal izan dute. “Konturatzen garena da, pisatutakoaren %32a behintzat birziklagarria dela. Gaiok ondo bereizita jasotzeak Usur-



Egunerokoan Usurbilen merkataritza eta industria jardueretatik biltzen den errefusean birziklagarria den gairik ba ote den aztertu du Anerreka ingurumen elkarteak.

ANERREKA

“Gaiok ondo bereizteak, Usurbilgo gaikako bilketa %90etik gorago egotea ahalbidetu dezake”

bilgo gaikako bilketa %90etik gorago egotea ahalbidetu dezake”. Egun %86an da.

Anerrekak ohartarazi duenez, “Udalaren Usurbil 0.0 egitasmoan 2020rako %90eko gaikako bilketa lortu behar dela jarria” du. Hobetzeko tar-tea dagoela iritzita, “eskakizuna ere hortik zuzentzen diogu Udalari, lerro honetan ahalegin handiagoak jarri behar direla emaitza hobetzeko”.

Hondakin industrialen eta komertzialen karakterizazioko emaitzak

Errefusa: %29,9 (15,5 kg).
Papera: %14,5 (7,5 kg).
Organikoa: %16,4 (8,5 kg).
Ontziak: %2,5 (1,3 kg).
Beira: %0 (0,0 kg).
Bestelakoak: %36,7 (19 kg).
Denetara: %100 (51,8 kg).

500 atxikimenduak bilduta, erronka beteta

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak (GHK) pixo-hialak eta higiene-produktuak birziklatzeko zerbitzua abian jar dezala eskatzeko Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak abiarazitako sinadura bilketa kanpainak erronka bete du; behar zituzten 500 sinadurak jaso dituzte. “Lortu dugu!

Pazienteki denbora hartu du-zuenoi sinatzeko, mila esker! Muralak osatu zenituztenoi, beste hainbeste!”, adierazi du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak sare sozialetan bidez. Beharrezko atxikimenduak jasota, orain, agintari politikoei edota erakundeei galderak helarazteko aukera eskaini

eta kanpaina bideratu duten plataformarekin “harremanetan jarriko gara jakiteko Asen-siok noiz erantzungo dion gai honi”. Hilabeteotan herriz herri aritu dira sinadurak biltzen, nahiz muralak osatzen. Zubietan eta Usurbilen ere atxikimendu bilketa postua kokatu zuten.



Zubietan eta Usurbilen atxikimenduak batzen aritu dira azken hilabeteotan.

Errioan, txalapartaren erritmora

Txokoaldeko Txalaparta Txokoan daudenetik, Oreka Tx taldeko kideek egitasmo ugari jarri dituzte martxan. Pasa den larunbatean antolatu zutena ikusgarria izan zen: Oriako jaitsiera egin zuten, txalaparta doinuen erritmora. Taldekideek eman digute esperientziaren berri.

“Txokoaldera iritsi ginenean, errioa deskubritu genuen”, azaldu digu Harkaitz Martinez de San Vicentek. “Geroztik bagenuen kapritxo modukoa: Oriako jaitsiera egitea, txalaparta jotzen”. Pasa den asteburuan bete zuten ametsa. 40 bidelagunekin batera osatu zuten Txokoalde eta Orio arteko bidea.

Txalapartarien Akanpadaren baitan antolaturiko ekitaldia

Txalapartarien Akanpada ospatu berri dute Orion. 100 bat lagun elkartu ziren eta tartean ziren kanpotik etorritako hainbat txalapartazale: “Tarragonakoak, Alakantekoak, Kanariar Irletakoak...”.

Akanpadaren baitan, Txaluparta Jaitsiera antolatu zuten larunbat arratsaldean eta 40 lagun animatu ziren. “Batzuk alan, besteak piraguan, beste batzuk txalupan... Zoragarria izan zen”, Oreka Tx taldeko



Orioko Txalapartarien Akanpadaren baitan, Oreka Tx taldekoek Txaluparta Jaitsiera antolatu zuten larunbat arratsaldean eta 40 lagun animatu ziren.

OREKA TX

Txaluparta Jaitsiera egin zuten larunbatean. 40 lagunekin batera osatu zuten ibilbidea

kideak aditzera eman digunez.

Egurra, banbua, harria, burria... Txalaparta jotzeko material ugari baliatzen du Oreka

Tx taldeak eta horiek denak entzun ziren larunbatean, errioa barrena eginiko jaitsieran.

“Ederra izan zen”

Irudiotan ikus daitekeen moduan, batzuk piraguan osatu zuten ibilbidea. Begi-Bistanekoei alokatu zizkieten. Txalaparta jotzeko ordea, bestelako

azpiegitura behar zuten. “Lasarte-Oriako Zuaznabar txalapartari familiak badu txalupa bat Orion eta jaitsierarako utzi ziguten. Eta Orioko Pikabeak motorrik gabeko ala bat”.

Eguraldia lagun, gozatu ederra hartu zutela adierazi digu Oreka Tx taldeko Harkaitz Martinez de San Vicentek. “Ederra izan zen”.



Iruditan ikus daitekeen moduan, gehienek piraguan osatu zuten Txokoalde eta Orio arteko jaitsiera. Begi-Bistanekoei alokatu zizkieten piraguak. Txalapartariak ordea txalupa eta ala baliatu zituzten.

Eskertza eta aitortza, Eliza Zaharra berritu dutenei

Aginagako Eliza Zahar eraberrituaren irekiera, auzolanean jardun diren herritarren omenaldi gunean bilakatu zen urriaren lehenean. Aginagako herriaren eta Udalaren eskertza eta aitortza jaso zuten egin duten ahaleginagatik. Gune eraberrituko oholtza gainera igo ziren, zapi bana jantzi lepoaren bueltan eta “herri bat hegan egiteko prest” zioen oroigarria jaso zuten omenduek, “komunitate honen balore berriak sustatzen dituelako”. Etorkizuneko aginagarren belaunaldiaren eskertza bertsotan jaso zuten.

Auzolan horretan aritu diren “Aginagako gazte eta ez hain gazteek lan talde bikaina osatu dute eta hauxe egin dute”. Emaitzarekin gustura, “elegante geratu da benetan; praktiko, funtzionala, gustu handiz egin... Gu bai ibiliko gara gustura”, zioten ekitaldia aurkeztu zuten Amaia Bereziartua eta Aitziber Aranguren aginagarrek.

Elkargune berriak izango dituen erabilera ezberdinak ekarri zituzten gogora; “ikas-taroak, antzerkiak, zinea, gazteak, umeentzako txokoak...” denetarik antolatu asmo dute.

Udala: “Bidaide izaten jarraituko dugu”

Omenaldi honetara batu zen baita Usurbilgo udal gobernu taldea ere. Taldearen izenean hartu zuen hitza Agurtzane



Aginagako Eliza Zaharraren eraberritzean parte hartu dutenek Aginagako herriaren eta Udalaren eskertza eta aitortza jaso zuten.

ELIZA ZAHARRA

Elkargune berriak izango dituen erabilera ezberdinak ekarri zituzten gogora; “ikastaroak, antzerkiak, zinea, gazteak, umeentzako txokoak...”

Solaberrieta Usurbilgo alkatetza. Ohiko ekipamendu batekin haratago doa bere esanetan, Aginagako Eliza Zaharra. “Herri elkargune izan nahi du. Aginagarren topagune, kulturaren arnagune eta herri eraikuntzarako sorkuntza gune”.

Legealdi hasieran, eraikina eraberritzeko aginagarrek Origami herriko arkitekto taldeari eskatutako aurreproiektua aurkeztu zioten udal gobernu taldeari. “Ez gatoz Udalak egin dezan eskatzera”, adierazi zutela eta “aho bete hortz geratu ginen, ez baita ohikoa”. Udalarri beharrezko zailtasun umeentzako eskatutako ziotela laguntza adierazi zieten. “Nola ba ezetz esan auzolanari, halako herri proiektu eder bati”. Aurtengo aurrekontuetan 50.000 euro inguru bideratu ditu Udalak egitasmo honetara. Horrekin batera, udal brigada lankidetzan aritu da aginagar taldearekin.

“Herrigintza eta auzolana hizki larriz idatzi eta praktikara eramanez duzue eta horixe da gaur arnasten ari garena”.

Orain arteko lankidetzaren emaitza ez da amaitzen alkatearen esanetan; “bide eder honetan bidaide izaten jarraituko dugu”. Gazteekin merezi duten solaskidetzaren eraikitzen denean emaitza hauxe da; Aginagako herri elkargunea. Gazteen potentzialtasuna, freskotasuna, errebeldia, ausardia, konpromisoa ikusi nahi ez duenak arazo larria du. Gu alboan izango gaituzue herri hobe baten ikusmiran”.

Patxi
Patriketa
Jatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak, ostegunetik larunbatera
☎ 943 362725 · ☎ 688 690 361

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Asteazkeneroko helduen paseoak bueltan dira

19 hilabeteko etenaldiaren ostean, Usurbilgo Udalak, anbulatorioak eta jubilatutako elkartek sustaturiko “Usurbil goazen kalera” egitasmoa bueltan da. Pandemia aurretik asteazken goizero herrian barrena ibilaldiak egiteko zegoen ohitura berreskuratuko da urriaren 13tik aurrera, 11:00etan Artzabaletik abiatuta, baina moldaketekin.

“Zenbait egokitzapen egin go dituzte, izena emandako jende kopuruaren arabera, segurtasun eta osasun neurriak bermatzeko”, Usurbilgo Udaletik ohartarazi dutenez. Hala, “ohiko formatuan, asteazkeneroko ibilaldiaren ostean zigilu bat jaso ohi zuten erabiltzaileek nork bere fitxan, parte hartu zuela ziurtatzen zuena. Orain, ordea, ez dute materialik konpartituko, eta beste era batera erregistratuko dituzte parte-hartzaileak”, iragarri dute Udaletik.



Pandemia aurretik asteazken goizero herrian barrena ibilaldiak egiteko zegoen ohitura berreskuratuko da urriaren 13tik aurrera, 11:00etan Artzabaletik abiatuta, baina moldaketekin.

UDALA

“Egitasmoa bereziki adineko herritarrei nahiz dibersitate funtzionalak dituztenei zuzendua dago”

Erabiltzaileen eskariz berreskuratua

Egitasmoa bereziki adineko

herritarrei nahiz dibersitate funtzionalak dituztenei zuzendua dago. Duela urtebete, pandemia betean ginela, galdetegi bat igorri zitzairen hiru urteko ibilbidea jorratu ostean. Parte hartzean izan zen beherakadaz nahiz egitasmoaren jarraipenaz hausnartzea zuten helburu. “Orain, haien eskariz berreskuratuko dituzte”, asteazken goizetako ibilaldiak.

Kiroldegia, errendimendu betean

Abian dira batetik, 2021-22 denboraldiako ikastaroak. “330 pertsonen eman dute izena, eta denek izango dute aukera ikastaroa hasteko, ez baita gainditu eskaintako plaza kopurua (eta, beraz, ez dute zozketa-rik egin behar izan)”. Gainera, “zenbait ikastarotan ez da lortu taldeak osatzea, eta izena emateko aukera izango dute: pilates hobekuntza, spinning gazte 14-18 urte, konbinatua, HIT, Usurbil Barrena, helduen-tzako ur hastapena, haurdunak ura + pilates, HH4 uretan (ostegunetan) eta LH2 igerilekua asteazken-ostiral”.

Igerilekua erabiltzeko aukera ere handitu dute; txanda berri bana “igerileku handian 20:30etik 21:30era, eta txikian, 20:30etik 21:45era”.

Igerileku ondoan kokatua dagoen Kiroldegiko sauna berritua erabiltzeko aukera dago baita. Horretarako aurrez hitzordua eskatu beharko da telefonoz. “Egunean bi txanda hartu ahal izango dira. Horrez gain, sauna erabiltzeko arautegi espezifiko ere osatu dute. Saunaren kokapena aldatu dute, igerilekuen ondora, jarduera hezea izanik, egokiagoa delakoan. Kokapena aldatuta, gainera,

sauna zaharra kendu eta garai bateko kiroldegiko langilea bizi zen espazioarekin bat eginda, beste areto bat sortzeko lanak egingo ditu udal-brigadak”.

Zubieta, finalerdietara heltzeaz

Ez du behar besteko puntuazioa eskuratu eta Enrique Abril errebote txapelketako finalerdietara sailkatu ezinik geratu da. Azken faserako sailkatu dira Villabonako Behar Zana, Donibane Lohitzuneko Luzean, Baigorriko Zaharrer Segi eta Kanboko Kanboarrak.

Zumarteko

ikastaroak

Kanta modernoa

■ Julen Morgado.

■ Astero 30 minutu.

Osteguna (Ordua irakaslearekin adostuko da).

Alboka

■ Teresa Jareño.

■ Astero 30 minutu.

Irakaslearekin adostuko da.

Dultzaina

■ Bittor Carrera.

■ Astero 30 minutu.

Ostirala/Larunbata.

Ukelelea

■ Nuria Culla.

■ Astero ordu bat.

Asteazken arratsaldea.

Dj eta musika elektronikoa (+16 urte)

■ Telmo Trenor.

■ Astero ordu bat.

Ostegun arratsaldea.

Grabaketa eta soinua (+16 urte)

■ Jurgi Taboada.

■ Astero ordu bat.

Ostiral arratsaldea.

Musika 0-3 urte

■ Aritz Larrea.

■ Hamabostean behin ordu bat. Asteazken arratsaldea.

Gitarra (+55 urte)

■ Ixak Arruti.

■ Astero ordu bat.

Ostegun goiza.

Musikarekin gozatzea (+55 urte)

■ Aritz Larrea.

■ Astero ordu bat.

Asteazken arratsaldea.

Azarotik ekainera

■ Ikastaro guztiak azarotik ekainera izango dira.

Izen-ematea, online

■ Izen-ematea online egin behar da, urriaren 1etik 13ra zumarte.eus helbidean.

Itzalaldia ostiralean, argindarraren prezioaren “iruzur larria” salatzeko

Argindarraren prezioa egunez egun mar-ka hausten eta goia jo ezinik dabil azken aldian, egunerokoan hedabideetan irakurri edo entzun ahal dugun moduan. “Deskonektatu elektriketatik!” aldarripean, “itzalaldi elektriko masiboa eta kazola-jotzea” deitu dute Herrialde Katalan, Galiza eta Euskal Herriko eragile politiko desberdinek; ERC, EHBildu, BNG, Junts, CUP, Més Per Mallorca eta Més Menorca eragileek hain zuzen, “argindarra- ren prezioaren etengabeko gorakadaren aurka”, urriaren 8an ostirala eta, ordu erdiz, 22:00-22:30 artean.

Deialdiarekin bat egin dutenen artean da Usurbilgo Udala. Udalak argitu duenez, ez du herri osoa argindarrak gabe utziko segurtasun arrazoiengatik. Irailaren 30eko udalbatzarrean gai honi buruzko atxikimendu mozioa onartu zuen



Itzalaldi elektriko masiboa eta kazola-jotzea deitu dute ostiral honetarako. Ordu erdi iraungo du, 22:00-22:30 artean.

SUSTATZAILEAK

“Espainiar estatuan ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak behar ditugu”

gehiengo osoz, EHBilduren babesarekin. EAJ abstenitu zen, PSE-k aurka bozkatu zuen.

Testuak “espainiar estatuko enpresa elektrikoak argindarraren prezioarekin egiten ari diren iruzur larria salatzen du”. Horren aurrean, “Euskal Herriak subiranotasun energetikoa behar du”. Mozioak dioenez, “espainiar estatuan ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak behar ditugu, sistema publi-

kotik eraikitzeko eta argindarra oinarritzko ondasun eta eskubide gisa errespetatzeko”. Horretarako, “Eusko Jaurritza/Nafarroako Gobernua interpelatzeko dugu, lankidetzako publiko-komunitarioa, deszentralizatua eta kontrol publikoa bermatuko dituen neurri zehatzak har ditzala presazko izaerarekin”.

Oposizioak ez zuen bat egin

EAJ: “Euskal gizarteak bere energia-eskaerari erantzun behar dio”

EAJ-k onartu ez zen mozio alternatiboa aurkeztu zuen. “Demagogia- eta amorru-diskursoak zabaltzeaz harago, gure esku dauden ekimenekin jardun behar dugu. Irakurketa sinplista eta partzialtatik harago, eraikitzaileak izan behar dugu, eta ez ditugu baztertu behar ingurumen- eta energia-erronkari aurre egiteko bideak. Mota guztietako berriztagarriak (eta biltegi-ratze-soluzioak) areagotzea, parke eolikoak eta fotovoltai-koak barne, eta energia aurrezteko funtsezkoak dira Euskadiren subiranotasun

energetikorako bidean”, zioen jeltzaleen testuak. Bide horretan aurrerapausoak ematen jarraitzen du EAE-k jeltzaleen mozioaren esanetan. “Euskal gizarteak bere energia-eskaerari erantzun behar dio, eta euskal energia-ereduak gero eta jasangarriagoa den eredu baterantz migratzen jarraitzen du”.

PSE-k “bonu soziala” edota energia berriztagarrien aldeko apustua defendatu zituen

PSE-k autokritika eginez ekin zion bere adierazpenei. Patxi Suarezren esanetan “PSOE-ren gobernu bat hasi zen elektrizitatea pribatizatzen”. Nahiz bide horretan guztiz sakondu

zuen zioenez, Aznarren eta PP-ren Espainiako gobernuak izan. Azken aldian Sanchezen Madrilgo gobernuak hartzen ari den erabakiak defendatu zituen PSE-ren udal ordezkariak: “BEZ-a %21etik %10era murriztea, ia 30 milioi kontsumitzailearentzat onuragarria”, argindar hornidura eteteko debekua edota “bonu soziala” defendatu zituen, edota energia berriztagarrien aldeko apustua. Neurriok “ez dira aski agian” baina zioenez, ikusiko da “zerk funtzionatzen duen, zer aldatu behar den”. Udalbatza osatzen duten alderdiek Madrilen duten ordezkartza baliatuta, auzia “Madrilgo Parlamentuan” konpontzera deitu zituen, EH-

Bilduren mozioaren aurka bozkatzeko zuela iragartzearekin batera.

Adierazpenoi erantzunez, EHBilduren udal gobernu taldetik, Beñat Larrañaga zinegotziak bitxitzat jo zuen PSOE-k argindar zerbitzuaren pribatizazioan izan duen “arduraz desmarkatzea”. Gertatzen ari denarekiko “erremediorik ez jartzea” egotzi zion, argindarraren prezioa etengabe eta egunero gorantz doala ohartaraziz. EAJ-k eta EHBilduk duela bi urte alor honetan eragiteko 100 milioi euroko funtsa udalen esku jartzeko adostasuna gogoraziz zuen; bi urte beranduago “ez dago martxan” zioen.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m² (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

Etxebizitza salgai Kalearren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705.

Alokairuan

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107.

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m² Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izateag baloratuko da. 669 527 452.

Zerbitzari bila gabiltza Aginaga sagardotegian. Deitu telefono zenbakiotako batera: 943366710 edo 943370668.

Zerbitzari euskalduna behar dugu Olarrondo jatetxean as-teartetik ostiralera, eguerdietarako soilik. 626 686 036.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505.

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera.

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Astelehen eta asteazken arratsaldeetan ingeleseko klaseak ematen ditut, norberaren etxean edo nirean. Klaseak ematen esperientzia zabala. 678106553.

Pertsona helduak, garbiketarako, peoi lanak edo pintore

laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonetako bat naiz. 622747833.

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833.

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 616 27 37 85.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioarekin. 612 433 485.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko. 631 89 49 90.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egin dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsu eta ondradua, garbiketa lan eta adinekoen zaintza lanetan

aritzeko erabateko prestasuna. Esperientziaduna. 602 481 854 / anisieza@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordutegi aldetik disponibiltate osoa. 608935674 (Anjela)

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo interna moduan 603315126.

BESTELAKOAK

Ukelelea ikastea gustatuko litzaidake. Taldean edo banaka aritzeko arazorik ez. Irakasleko moduan bazara deitu 606330556 telefono zenbakira.

Filologia ikasketak ditut, ingeleseko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. Harremanetan jartzeko: 660845780 / bouchrahar@outlook.com

**Zorionak Alain!**

Muxu handi bat etxekoen partez.

Goardiako farmaziak

Osteguna 07 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 08 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 09 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 10 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astelehena 11 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 12 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 13 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 14 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 15 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 16 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 17 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Agenda urria

08 ostirala

■ **Sagar erakusketa Sutegiko erakusketaren-aretoan.** Antolatzaileak: Alkartasuna Kooperatiba, Sagardoaren Unibertsitatea eta Udala.

09 larunbata

■ **Sagar erakusketa Sutegiko erakusketaren-aretoan.** Antolatzaileak: Alkartasuna Kooperatiba, Sagardoaren Unibertsitatea eta Udala.

10 igandea

■ **Sagar erakusketa Sutegiko erakusketaren-aretoan.** Antolatzaileak: Alkartasuna Kooperatiba, Sagardoaren Unibertsitatea eta Udala.

Gladys del Estalen inguruko dokumentala Sutegin ikusgai

Bertha Gaztelumendik zuzendutako 'Ez, eskerrik asko! Gladysen leihoa' film-dokumentala ikusgai izango da ostegun honetan (urriak 7) Sutegin. 18:30ean hasiko da proiektzioa. Sarrera doakoa da baina aldeztu aurretik eskuratu behar da gonbidapena usurbilkultura.eus web orrialdean.

■ **Sinopsia:** 80ko hamarkada hasieran mugimendu antinuklearra puri-purian zegoen nazioartean, eta baita Euskal Herrian ere. Kostaldean eraikitzen ziren hiru zentralak gain (Lemoiz, Ea-Ispaster eta Deba), Arguedasen laugarren bat egiteko asmoa zegoen. Horren aurka protestatzeko, mobilizazioak antolatu ziren Tuteran. Gladys del Estal Ferreño Tuteran joan zen, baina ez zen itzuli. Manifestazio



Bertha Gaztelumendi zuzendaria eta Sabino Ormazabal gidoigilea Sutegin izango dira.

tazio baketsu hartan, Guardia Zibil baten tiroak hil zuen.

Urriak 7 osteguna

■ 18:30ean Sutegin. Bertha Gaztelumendi zuzendaria eta Sabino Ormazabal gidoigilea bertan izango dira.

■ Antolatzailea: Anerreka Elkartea.

Sagar erakusketa eta bertso-ibilaldia

Sagardotarako erabiltzen diren 115 barietateren artean aukeraketa bat egin dute eta uzta Sutegiko erakusketa-aretoan topatuko duzue. Urriaren 1etik 10era egongo da erakusketa ikusgai.

Bestetik, urriaren 24an igandea, bertso-ibilaldia antolatu dute. Txokoaldeko

parketik abiatuko dira goizeko 10:00etan.

■ **Bertsolariak:** Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña. Jakoba Errekondok hainbat argibide eskainiko ditu.

■ **Izen-ematea:** alkartasuna@usurbil.com idatziz edo 943 361 114 telefono zenbakira deituz.

Datozenak

Nerea Arriolaren bakarrizketa Zubietan

Urriaren 15ean ostirala, Nerea Arriola umoregileak bakarrizketa-saioa eskainiko du Zubietan. Arratsaldeko 18:30etan hasiko da emanaldia eta Zubietako elizan egingo da. Aurretik eman behar da izena, usurbilkultura.eus web orrialdean.

■ Urriaren 15ean ostirala.

■ 18:30ean Sutegin.

■ Prezioa, doakoa.

■ Sarrerak usurbilkultura.eus web orrialdean eskuragarri.

Pelaxen kontzertua Sutegin

Hainbat hilabete emanaldirik egin gabe pasa ostean, bueltan da Pelax rock talde donostiarra. 2019ko ABDE disko progresibo bikoitza kaleratu denetik ia pare bat urte pasa diren honetan, "gogotsu dago boskotea lokaletik atera eta oholtza berriz zapaltzeko", udalaren web orrialdean irakurri dugunez.

■ Urriaren 17an igandea.

■ 19:00etan Sutegin.

■ Prezioa: 6 euro.

■ Sarrerak usurbilkultura.eus web orrialdean salgai.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugul!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, pizzak..
JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO



Ofizioen Gida



Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

urdaintzi.euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza
Igeltseritza orokorra

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05



Telefona
693 059 392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behe, Lasarte-Oria

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

· gremioen koordinaketa
· berritze lanak
· sukaldeak
· komunak

943 530 337
607 119 313

errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L

· FATXADAK ETA TEILATUAK
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK
· URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA

GAR
GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38 - 628 45 78 39 - 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com

NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL



Antonio URRUZOLA
AROTZEGIA

Tel/Fax: 943 376 415

Asteasuain Industrialea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROTZEGIA

943 362 664

Barren Elxe kalea ZUBIETA

J. R. IBARGOEN S.L.
ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jribargoien@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



antenas
Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki
Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITZAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

zuri arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarraiturgintza@gmail.com

Rafa
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK
· KONFINATZAZKO GREHIOAK · KOMUNEKO ALTZARIARIK

Bordaberri kalea 1, 1. behea • 943 36 80 04

ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

maiz
hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK
· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

10 €-ko 1.500 TXEKE BANATUKO DITUGU



AURKEZTU ZURE EROSKETA-
TIKETAK PARTE HARTZEKO
STANDEAN **AZAROAREN 20RA ARTE.**



NOLA PARTE HARTU

Zatoz sustapenaren stand interaktibora, eta erakutsi **URBIL APLIKAZIOAREN IDENTIFIKAZIO-KODEA + GUTXIENEZ 10€-ko BI EROSKETA-TIKET** (bata modakoa eta bestea beste edozein kategoriakoa), irailaren 27tik azaroaren 20ra bitartean egindako erosketenak.

PARTE HARTZEKO ORDUTEGIA

Astelehenetik larunbatera, 11:00etatik 14:30etara eta 16:30etik 20:30era.

Gehienez 2 partaidetza pertsonako eta eguneko. Informazio guztia eta oinarri legalak www.urbil.es-en.